

KONTROL MOZIOA

UDALAK DIRUZ LAGUNDUTAKO KIROL EKINTZETAN EUSKARAREN ERABILERAREN GAINEKOA

Itziar Iturri Arrazola, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko uztailaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Uztailleko batzordeetan Donostia Kirola-k diruz lagundutako hainbat ekimen aztertu genituen; zehazki, Donosti Cup-en aurkezpenean eta Pro Padel League txapelketaren publizitatean erabilitako hizkuntzei buruz aritu ginen.

Euskararen Udal Ordenantzaren arabera, hainbat aldiz batzordeetan eta udalbatzan salatu izan dugun moduan, “Kultur, kirol eta aisia elkarteek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, dirulaguntzak eskuratzeko, diruz lagundutako beren jardueretan euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz egin eta zabaltzeko beharko dituzte argitalpenak eta ahozko mezu eta adierazpenak. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte. Adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna”.

Oyarbide andreak azaldu zigun Donostia Kirola-k diruz laguntzen dituela bi ekitaldi hauek “duten garrantziagatik, hemen zein nazioarte mailan mediatikoki duten inpaktuagatik eta hiria kirol-erreferente gisa posizionatzen laguntzen dutelako. Erakundeak, ahal duen neurrian, bi ekitaldietako antolatzaileek euskararen erabilerari buruzko araudia betetzen dutela zaintzen duela, eta hala adierazi zaiela (bestelako eskakizunekin bezala)”.

Donostia Cup-en kasuan, iazko EH Bilduren interpelazioen ondorioz egoera bideratu da eta zoriontzekoa da euskararen presentziak txapelketan zehar izan duen hobekuntza.

Pro Padel League-n kasuan, ordea, eta Oyarbide andreak azaldu zigunez, “txapelketaren aurreko bileretan euskararen presentziaren garrantzia azpimarratu zitzaizen sustatzaileei”. “Publizitate-karteletan euskararen presentzia hutsaren hurrengoa izan dela ikusita, Donostia Kirola-tik lehenengo balorazioa egingo da eta, ondoren, sustatzaileekin bateratze-lana egingo da euskararen erabilera kontrastatzeko”.

Bada, bertan egon diren hiritarrek adierazi digutenez, euskararen presentzia Donostiako Tennis Elkarte Errealean gauzatu den padel txapelketan hutsaren hurrengoa izan da. Hitz bakar bat ere ez euskaraz. Antza denez, baieztatuta dago datorren urtean ere Donostian ospatuko dela Pro Padel League delakoa.

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu du:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari euskararen inguruko udal ordenantza betearaztea eta helburu horretarako behar diren bitartekoak jartzea.

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari emandako dirulaguntzen jarraipena egin dezala onuradunek bete beharreko baldintzak betetzen dituztela bermatzeko, tartean euskararen inguruko betebeharrak. Eta, hala ezean, neurriak har ditzala bestelako eskakizunak betetzen ez direnean gertatzen den bezala.

Donostian, 2025eko uztailaren 18an

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia